

2023/24 IKASTURTEKO UPV/EHUko MASTER OFIZIALETAKO TALDEAK SORTZEKO ETA IRAKASLANA GRABATZEKO INFORMAZIOA

Hemen bildutako informazioa masterretako irakaslan grabatzeaz arduratuko diren langileei helaraztea komeni da.

1. ZEIN SAILEK ETA IKASTEGIK SORTU BEHAR DITUZTE UNIBERTSITATEKO MASTER OFIZIALETAKO IRAKASGAIAK?

2020/21 ikasturtetik, masterren ardura duten zentroek sortu behar dituzte irakasgaietako taldeak

Bi egoera egon daitezke:

1. Norabide profesionalak dituzten masterrek: irakasgaiak irakasten dituzten zentroek eurek sortuko dituzte. Ez dago aldaketarik .Hurrengoak dira:

- 306 Zentroa- Bilboko Ingeniaritza Eskola :
 - o ININD902: Industria Ingeniaritzari buruzko Unibertsitate Masterra.
 - o INTEL902: Telekomunikazioaren Ingeniaritzari buruzko Unibertsitate Masterra.
 - o NATMA11a: Nautika eta Itsas Garraioa Unibertsitate Masterra.
 - o MARIN11a: Itsasketa Unibertsitate Masterra.
- 231 Zentroa- Psikologia Fakultatea:
 - o PGSAN801: Osasun Psikologia Orokorra Unibertsitate Masterra.
- 308 Zentroa- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea:
 - o SESAL401: Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra.
- 224 eta 324 Zentroak- Zuzenbide Fakultatea:
 - o ABOGA701: Abokatutza Unibertsitate Masterra.
- 205 Zentroa- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea): Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterrak. Hurrengoak dira:
 - o PROSE811: Natur Zientziak eta Matematika
 - o PROSE812: Giza eta Gizarte Zientziak
 - o PROSE813: Musika Hezkuntza
 - o PROSE814: Hezkuntza Orientazioa
 - o PROSE815: Teknologia
 - o PROSE816: Gorputz Hezkuntza
 - o PROSE817: Hizkuntza eta Literatura
 - o PROSE818: Hezkuntza Artistikoa
- 305 Zentroa- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea :
 - o AUDIC11a : Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea.
 - o ACYFI16b : Aktuariotza eta Finantza Zientziak Unibertsitate Masterra
- 240 Zentroa- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa:
 - o ARQUI12b: Arkitektura Unibertsitate Masterra

2. **Norabide profesional gabeko masterrak (2018/19 ikasturte arte, GAUR-en 908 zentroaren menpe daudenak):** 2020/21 ikasturtetik aurrera irakasgaiak Unibertsitate Masterren irakasgaien arduradunak diren Zentroek sortu beharko dituzte.

Gerta liteke master multzo horretan 2018/19 ikasturtean edo aurreko urteetan hasi ziren ikasleen zati batek, Masterren eta Doktoregoen Eskolaren zuzeneko erantzukizuna izanik, masterra amaitu ez izana. Ibilbidea errazteko, baliteke irakasgai batzuk sortu behar izatea, bai Zentro berriaren arabera, bai MDe-ren arabera.

Horregatik, master horietarako aukera emanen da, MDe-ren arabera, ikasleek beren espedienteak amaitzeko ezinbestekoak diren nahitaezko eta hautazko irakasgaiak sortzeko. Irakasleen Plantilla Antolatzeke Zuzendaritzak sortuko du, Batzorde Akademikoak eskatu ondoren.

Bestalde, honako jarraibideak kontuan hartu behar dira:

- Unibertsitateen arteko masterrak antolatzen dituzten sail, institutu edo ikastegiek sortu egin beharko dituzte UPV/EHUtik kanpo irakasten diren masterreko irakasgaietako taldeak¹.
- Practicumeko irakasgaiak 77777 sail arduradunari atxikita dauzkaten masterren kasuan, sail, institutu edo ikastegi antolatzailerak gestionatuko ditu GAUR aplikazioan taldeen mantentzea eta irakasleen pantailak.
- Aldiz, unibertsitateko master sortu berrien kasuan ezin zaio ekin grabazioari Graduondoko Ikasketen Atalak GAUR aplikazioan sartu artean masterraren datuak.

Irakasgai bakoitzaren arduradun zentroek irakasgaietako taldeak sortu beharko dituzte. Fase hau guztiz garrantzitsua da ikasleek matrikula egin dezaten. Aurretik irakatsi diren masterren kasuan, taldeen kopia egiteko aukera egongo da. Dokumentu honetako 5. atalean azaltzen dugu prozesu horiek nola osatu behar diren.

Irakasgaiak behin sortuta irakaslana grabatu behar da. Fase hau beharrezkoa da irakats betebeharrak esleitzeko irakasgaia ematen duen irakasleari. Dokumentu honetako 8. atalean azaltzen dugu irakaslana nola grabatu.

¹ GAUR aplikazioaren barruan 55555 sail asmatuari esleitu zaizkio irakasgaiok. 11. puntuan dago azalduta irakasgai horiek nola grabatu behar diren.

2. NORK GRABATU BEHAR DU UNIBERTSITATEKO MASTER OFIZIALETEKO IRAKASLANA?

Arau orokor moduan, sailaren graduiko ikasketen grabazioa egin ohi duten administrazioko langileengana jo dezakete sailek.

Baina sailak administrazioko langile gutxi baditu, ez da egongo inolako arazorik zuzendaritzak masterraren arduradunari agindu diezaion zeregin administratibo hori, edo idazkari akademikoari zein beste irakasle edo ikertzaile bati.

Ikastegiek antolatutako masterren kasuan, practicumeko irakasgaiak 77777 sail asmatuari atxikita badituzte, ikastegiko dekanok edo zuzendariak banatuko du datuak grabatzeko zeregina ikastegiko administrazioko langileen artean.

3. NORK DAUKA GRABATU BEHARREKO INFORMAZIOA?

Masterraren arduradunak emango die irakasgaiez arduratuko diren sailei taldea sortzeko ezagutu behar diren ezaugarriei buruzko informazioa (hizkuntza, txanda, eskolak emango diren lauhilekoa, kupoak...). Era berean, irakasgai bakoitza zein irakaslek emango duen jakinaraziko die, baita kredituen kopurua ere.

Informazio hori GAUR aplikazioan sartu behar da, kontuan hartuta proposamen onartutako datuak zein ondorengo aldaketak. Unibertsitateko master ofizialak akreditatzeko prozesuan egiaztatu egin beharko da Masterraren Ikasketa Batzordeak ontzat eman dituela aldaketa guztiak (hau da, proposamena egin zenetik akreditatzeko unera arte gertatuak), eta kasuan kasuko sailetako kontseiluek baimena eman dutela horretarako.

4. MASTERREKO IKASKETA PLANEAN AGERTZEN DIREN IRAKASGAI GUZTIAK ESKAIN DAITEZKE?

Ez. Masterretako hautazko eskaintzaren gaineko arautegiak, AOB-k 2020ko martxoaren 25ean onartutakoak, Masterretako hautazkoen eskaintza mugatzen du. Akademia Antolakuntzako Batzordeak onartuko ditu hautazkoen eskaintza mugatzen duten irizpideak, matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera eta ikasleak egin beharreko hautazko kredituen kopuruaren arabera.

Masterren arduradun bakoitzak idatzi bat jasoko du, aplikatuko diren irizpideei buruzko informazioa emango diona eta kasuan kasuko masterrari nola eragiten dion jakinarazi.

5. ZER DA TALDEAK SORTZEA ETA TALDEEN KOPIA EGITEA?

Talde bakar bat grabatuko da masterreko hasierako proposamenean irakasgaiari lotuta agertzen den irakaskuntza mota bakoitzeko. Taldearen hizkuntza izango da masterreko proposamenean irakasgairako adierazi zena.


Aurretik eskaini EZ diren masterren kasuan taldeak sortu beharko dira, 5.1 azpiatalean azalduko dugun moduan. Aldiz, aurretik irakatsi diren masterren kasuan taldeen kopia egiteko aukera dago, 5.2 azpiataleko azalpenei jarraiki.

5.1 ZER DA TALDEAK SORTZEA?

Taldeak sortzeko prozesuari ekiteko, "Irakaskuntza Eskaintza" aukeratu behar dugu GAUR aplikazioan, eta ondoren "Irakaskuntza eskaintzaren proposamena" eta "Irakasgaiko taldeak". "Irakasgaiko taldeen eta praktiketako taldeen mantentzea" izeneko pantailara heltzean, honako eremu hauek derrigor bete behar dira:

- **Ikasturtea.** 2023/24
- **Ikastegia:** zein den aukeratu [Kasu batzuetan , bai ikastegi berriaren menpe bai (908) ikastegian taldeak sortu behar dira].
- **Plana:** goitik beherako menuan aukeratu behar da kasuan kasuko plana.
- **Irakasgaia:** goitik beherako menuan aukeratu behar da kasuan kasuko irakasgaia.

Bilaketa egiteko agindua emanda, mezu hau agertuko da: ez da erregistrorik aurkitu. Hau da, oraindik ez da sortu talderik aukeratu dugun irakasgairako. Beraz, sortu egin behar dugu.




Taldea sortzeko, klik egin behar da gurutze berdea daukan tresna barrako botoian (Txertatu erregistroa). Agertuko zaigun pantaila horretan sortuko ditugu taldeak, euren ezaugarriak zehaztuta:

- **Hizkuntza:** masterraren proposamenean definitutako hizkuntza hartuko du sistemak zuzenean. Ezin da aldatu.
- **Talde mota:** masterreko irakasgaien kasuan oinarritzko talde mota magistrala da. Ezin da aldatu.
- **Eskola mota:** masterraren proposamenean definitutakoa hartuko du sistemak zuzenean (ikasgelakoa, birtuala, bietakoa, eta abar). Ezin da aldatu.
- **Taldeak elkartuta:** Taldeak elkartzeko aukera eskaintzen du, irakasgaiko talde teorikoetatik abiatuta. Hau da, masterreko plan desberdinetako irakasgaiko taldeak bildu egiten dira eskolak talde bakarra izango balitz moduan emateko. Horretarako ezinbestekoa da ezaugarriak berberak izatea (hizkuntza, txanda, lauhilekoa, deialdia, ordutegia, gela, eta abar), baita ere eskolak emango dituen irakasle taldea. Mota horretako irakasgaiak dauzkaten sailek **"BAI"** aukeratu behar dute "Taldeak elkartuta" eremuan, elkarketa osatuko duten talde guztien kasuan. Elkarketak gestionatzeko prozesua 6. puntuan dago azalduta.
- **Lauhilekoa:** masterraren proposamenean agertzen den lauhilekoa hartuko du sistemak, baina aldatu egin daiteke.
- **Deialdia:** masterraren proposamenean agertzen diren deialdiak hartuko ditu sistemak, baina aldatu egin daitezke.

- **Txanda:** "goizez" edo "arratsaldez" aukeratu beharko da.
- **Iraupena:** masterraren proposamenean definitutakoa hartuko du sistemak zuzenean. Ezin da aldatu.

Gainerako ezaugarriak ez dira adieraziko, edota sistemak emandako moduan utziko dira.

Aldaketak gordeko ditugu jarraian, tresna barrako botoian sakatuta, eta mezu hau agertuko zaigu: kupoak ezarri behar dizkiozu irakasgaiko talde honi.



"Jarraitu" botoian klik egin eta "Kupoen kudeaketa" pantailara pasatuko gara. Pantaila horretan, oro har, "Propioak" eremua besterik ez da bete behar, irakasgairako eskaintzen den plazen kopurua adierazita.

Curriculum lerro zehatz bateko irakasgaia beste lerro batzuetako ikasleei eskaini nahi bazaie, "Lerrotik kanpo" eremua bete behar da. Ezin da grabatu kuporik "Ikasle berriak" eta "Aukera askeko planak" eremuetan.

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0110-Kupoen kudeaketa

Hautatzeko irizpideak

Ikasturtea:	2009/10	Saila:	149 Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakin Mekanika
Ikastegia:	908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación	Zikloa:	Zehaztug... Maila: Zehaztugabea
Plana:	INENS201 Ingeniería Energética Sostenible	Irakg. t.	01 Jakintza-arloa
Irakasgaia:	501725 Mecánica de fluidos computacional		

Irakasgaiko taldeen kupoak

Irakg. t.	Mail. t.	Eskol.mota
01		Ikasgelako

Taldearen egoera: Ados

Taldea elkartuta: Ez

Elkarketa-helburua: Ez

Kolektiboak

Azalpena	Eskain. plaz.	Matrik. plazak	Kolek. ixte-data
Propioak	100		
Ikasle berriak			
Lerrotik kanpo			
Aukera askea			

Eskain. plaz. guztira:

Aukera askea

Ikasle berriak	Aukera askeko planak
Eskain. plaz. Matrik. plazak Kolek. ixte-data	Zikloa: ☐ Guztiak ☐ Onartuak ☐ Ez onartuak

Aukera askeko planak

AA ikast.	AA plana	AA zikloa	Eskain. plaz.	Matrik. plazak	Kolek. ixte-data

AA ikast.: AA plana:

Kolektiboarentzat eskaintako plaza kopurua: Record: 1/4 <OSC>

Aldaketak gorde eta aurreko pantailara itzuliko gara, tresna barrako kasuan kasuko botoia sakatuta.

Praktiketako taldeak

Masterraren proposamenean irakasgai batek praktiketako taldeak izango dituela agertzen bada, talde horiek sortu egin behar dira. Beraz, "Irakasgaiko taldeen mantentzea" pantailara itzuliko gara eta beheko aldean agertzen den "Praktik. Tal." botoian egingo dugu klik.

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0100-Irakasgaiko taldeen mantentzea

Hautatzeko irizpideak

Ikasturtea: 2009/10
 Ikastegia: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Coi
 Plana: INENS201 Ingeniería Energética Sostenible
 Irakasgaia: 501725 Mecánica de fluidos computacional

Sala: 149 Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika
 Zikloa: Zehaztuga...
 Maila: Zehaztuga...

Irakasgaiko taldeen mantentzea

Hizkuntza: Gaztelania Txanda: Goizez
 Talde mota: Magistrala
 Mail.t.: Irakg. t.: 01
 Eskola mota: Ikasgelakoa Irakaslaguntza:
 Taldeak elkartuta: Ez Elkarketa-helburua:
 Lauhilekoa: Lehen lauhilekoa Iraupena: 15
 Ohiko deialdia: Otsaila

Praktiketako taldeak sortzeko

Eskaerak: 100
 Matrikulatutako plaza kop.: 0

Transakzioa eginda
 Record: 1/1

Klik eginda, "Praktiketako taldeen mantentzea" pantaila azalduko zaigu. Sortu nahi den praktiketako taldea zein motatakoa izango den adierazi beharko dugu, goitik beherako menuetik aukeratuta: gelako praktikak, laborategikoak, landakoak eta abar. Gogoratu talde bakarra sortu ahal dela masterraren proposamenean aipatutako eskola mota bakoitzean. Hortaz, 1 zenbakia jarriko da "Sortu beharreko talde kop." eremuan. "Eskainitako plazak" eremuan, berriz, talde magistralerako eskainitako plazen kopuru bera jarriko da.

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0100-Praktiketako taldeen mantentzea

Hautatzeko irizpideak

Ikasturtea: 2009/10
 Ikastegia: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Coi
 Plana: INENS201 Ingeniería Energética Sostenible
 Irakasgaia: 501725 Mecánica de fluidos computacional

Sala: 149 Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika
 Zikloa: Zehaztuga...
 Maila: Zehaztuga...

Praktiketako taldeen mantentzea

Irakasgaiko taldea: 01
 Hizkuntza: Gaztelania
 Txanda: Goizez

Praktika mota: P. Ordenador
 Seminario

Talde kopura praktika bakoitzeko:
 Sortu beharreko talde kop.: 1
 Eskainitako plazak:
 Iraupena: 15

Praktiketako taldeak

Irakasgaia: Sala:

Ez da erregistrorik aurkitu.
 Record: 1/1

Aldaketak gordeko ditugu. Mota desberdinetako taldeak sortu behar baditugu, erregistro berri bat sortzeko botoia sakatuko dugu pantaila berean eta azaldu berri dugun prozesu berbera errepikatuko dugu talde mota guztietarako.

Talde guztiak behin sortuta, pantaila horretatik eta hurrengotik irtengo gara, abiapuntura heldu arte berriro, hau da, "Irakasgaiko taldeen eta praktiketako taldeen mantentzea" pantailara. Sortu ditugun taldeak ikusiko ditugu pantaila horretan (ezkerrean magistrala eta eskuinean praktiketakoak).

Ezaugarriren bat aldatu behar izanez gero, egin klik bi aldiz eremu horretan.

Talderen bat ezabatu nahi baduzu, jarri talde horren gainean eta egin klik gurutze gorria daukan tresna barrako botoian (Ezabatu erregistroa). Praktiketako taldeak lotuta dituen talde magistralko bat ezabatu nahi badugu, sortu ditugun praktiketako talde horiek ezabatu behar ditugu lehendabizi.

Esan den moduan, arau orokorra izango da irakasgai bakoitzean talde bakarra grabatzea irakaskuntza mota bakoitzeko (eskola magistralko, mintegiak, ikasgelakoak...). Dena dela, master batzuen kasuan, euren espezifikotasuna dela eta (bigarren hezkuntzako masterra, taldeak Latinoamerikan, eta abar), beharrezkoa gerta daiteke bigarren talde magistralko sortzea. Halakoetan, masterraren arduradunak edo sailak harremanetan jarri behar dira Akademia Antolakuntzako Zerbitzua (Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza).

5.2 AURREKO URTEETAKOEN KOPIAK

2022/23 ikasturtean masterra eskaintzeko baimena izan duten sailek, taldeak eta irakaslana kopiatu ahal izango dituzte 2023/24 ikasturterako. Kopia hori egiteko modua eta graduko irakasgaien kasuan kopia egiteko modua oso antzekoak dira, baina alde hau dago: masterren kasuan sailek egin behar dute taldeen zein irakaslanaren kopia, eta graduko irakasgaien kasuan taldeen kopia ikastegiek egiten dute.

Hauek dira eman beharreko urratsak:

a) "Irakaskuntza eskaintza" menuaren barruan "Irakaskuntza eskaintzaren proposamena" eta "Aurreko urteetako kopia" aukeratu behar dira. Horrela eginda, pantaila honetara helduko gara:

The screenshot shows the 'Gestio akademikoko sistema' (Academic Management System) interface. The main window is titled 'ofdm0140-Aurreko urteetako kopia'. It contains several sections:

- Hautatzeko irizpideak (Selection criteria):** Fields for 'Ikasturtea' (2008/09), 'Masterra' (checked), 'Ikastegia' (908), 'Plana' (Unit de Estudios de Posgrado y Formación), 'Irakasgaia' (Saila), 'Zikloa' (Maila), 'IBP' (Lauhilekoa).
- Irakasgaiko taldeak (Course groups):** A table with columns: Tal. Ord., Irl., Irlan., Ikastegia, Plana, Zikloa, Maila, Irakasgaia, Saila, Taldea. The table lists several courses, with 'ECONO301' highlighted.
- Praktikak (Practices):** A table with columns: Tal. Ord., Irl., Irlan., Mota, Sek. It lists practices like GA, GO, TI, S.
- Ikastegia (University):** 'Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua'.
- Saila (Department):** 'Departamento Máster NO upv/ehu'.
- Plana (Plan):** 'Máster en Economía: Instrumentos del Análisis Económico'.
- Irakasgaia (Course):** 'Economía internacional'.
- Hautatu (Select):** Buttons for 'Orduetegiak', 'Taldea', 'Irakasleak', 'Orduetegiak', 'Irakaslana', 'Hautatu dena', 'Desautatu dena'.
- Helburua (Objective):** Fields for 'Ikasturtea' and 'Kopiatu'.

The bottom status bar shows 'Record: 98/?' and '<OSC>'.

b) Erabiltzaileak "Masterra" laukitxoa markatuko du, eta ikasturtea eta ikastegia zeintzuk diren adierazi.

c) Bilaketa egiteko esanda, sailaren ardurapean dauden irakasgaiko talde guztiak agertuko dira, eta horiek guztiak kopiatzeko aukera dago. Bilaketa zehatzagoa ere egin daiteke, kasuan kasuko ezaugarriak adierazita: plana, zikloa, maila eta abar.

d) Kopia daitezkeen taldeak (pantailan azaltzen direnak) dira bai masterraren proposamenean bai sisteman grabatutako irakats eskaintzan agertzen direnak. Hau da, proposamenean talde magistralaz gain praktiketako taldeak dauzkaten irakasgaiak kopian ahal izateko, praktiketako talde horiek grabatuta egon behar dira irakats eskaintzan.

e) Pantailan agertzen diren irakasgaiak banan-banan kopian ahal izango ditugu, edo denak batera.

f) Erregistroak aukeratuta, helburuko ikasturtea adieraziko da eta "Kopiatu " botoia sakatuko.

6. NOIZ ETA NOLA ELKARTU BEHAR DITUZTE SAILEK IRAKASGAIAK

Sailek elkartu egin behar dituzte eduki berberak dauzkaten irakasgaiak, master desberdinetakoak izan arren. Halakoetan, Masterraren Ikasketa Batzordeak irakasle talde berari esleitu behar dizkio elkartutako irakasgaien eskolak. Irakasgaietako taldeak behin sortuta, sail bakoitzak beharrezko elkarketak egin behar ditu. Hauek dira eman beharreko urratsak:

Elkarketa osatuko duten taldeak definitu eta markatu ondoren, irakasgaiko taldeen ezaugarriak zehaztean azaldu den moduan, elkarketei ekingo zaie. Horretarako, "Irakaskuntza Eskaintza" aukeratu behar dugu, eta ondoren "Irakaskuntza eskaintzaren proposamena" eta "Irakasgaiko taldeen elkarketak". Horrela eginda, pantaila honetara helduko gara:

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0130-Irakasgaiko taldeak elkartzeko kudeaketa-prozesua

Hautatzeko irizpideak

Ikasturtea: 2009/10
Ikastegia: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Coi
Plana: DEYCO402 MASTER EN DESARROLLO Y COOPERACIÓN INT
Irakasgaia:
Zikloa:
Maila:

Irakasgaiko taldeen elkarketak (helburuko datuak)

Elk. zk.	Irakg. talde.	Irakasgaia	Mail. talde.	Plaza kop.	Ikastegia	Plana	Zikloa	Maila	Plaz. kop. guzt.
2599	01	500367		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100
2600	31	500367		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100
2601	01	500371		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100
2602	31	500371		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100
2603	01	500369		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100
2604	31	500369		100	908	DEYCO402	Zehaztug	Zehaztug	100

Irakasgaiak: Gizarte eta kultura aldaketak globalizazioan
Ikastegia: Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua
Plana: MASTER EN DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACI
Irakg. taldea

Elkarketaren zk
Record: 6/6
<OSC>

Bistan denez, kontsultarako erabili diren eremuen arabera aldatzen da eskuratzen den informazioa. Egiten den lehenengo elkarketa bada, pantaila zuri egongo da. Dena dela, gogoan izan behar da honako hau: elkarketa behin eginda, elkarketaren helburu diren irakasgaiei buruzko datuak baino ez dira ikusiko.

Elkarketa egiteko, erregistro berri bat sortuko dugu tresna barrako "Txertatu erregistroa" erabilita (gurutze berdea daukan botoia). Horrela eginda, hurrengo pantailara helduko gara ("Elkarketak"):

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0130-Elkarketak

Elkartu beharreko taldeak

Ikasturtea: 2009/10
Ikastegia: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Coi
Plana:
Irakasgaia:

Tipologia
Klasikoa ☐ Berritua ☐ Gradua ☐ Masterra ☒
Zikloa: Maila:
Irakg. talde:

Irakg. talde	Irakasgaia	Plana	Plaza kop	Zikloa	Maila
☐ 01	501564	TECGA201	20	Zehaztugak	Zehaztugab
☐ 01	501563	TECGA201	40	Zehaztugak	Zehaztugab
☐ 01	501561	TECGA201	20	Zehaztugak	Zehaztugab
☐ 01	502337	INCAR401	100	Zehaztugak	Zehaztugab
☐ 01	501565	TECGA201	20	Zehaztugak	Zehaztugab
☐ 16	500362	INGMA201	40	Zehaztugak	Zehaztugab

Irakg. azalpena
Hondakinen kudeaketa aurrerapena
Plan azalp.
Ingenieria Ambiental

Haut. dena
Desaut. dena

Elkarketak

Helbr	Irakg. talde	Irakasgaia	Mail. talde	Plaza kop	Ikastegia	Plana	Zikloa	Maila
☐								
☐								
☐								
☐								

Ikastegia: Plana: Irakasgaia:

Kupoak helburuan
Kupoak
Ordutegiak
Irakg. taldea

Record: 1/9 <OSC>

Masterretako irakasgaiak elkartu ahal izateko, "Masterra" izeneko eremua egon behar da markatuta talde tipologian (pantailaren goiko aldean, eskuinetara). Ikasturtea eta ikastegia adierazi ondoren, eremuen arabera bilaketa egiten daiteke. Ez bada zehazten ezer, sailak elkargarritzat jo dituen irakasgaiko talde guztiak agertuko dira pantailan, eta horien artean aukeratu beharko da elkarketa egiteko. Ikus daitekeen moduan, pantailan bi alde bereizten dira nabarmen:

- Goiko aldean agertzen diren irakasgaiek bete egiten dituzte bilaketarako zehaztu diren irizpideak. Elkarketa osatuko dutenak aukeratu behar dira ondoren, talde bakoitzaren ezkerrean agertzen den laukitxo markatuta.
- Jarraian pantailako beheko aldera jaitsiko ditugu, pantailaren erdian agertzen den gezia klik eginda.

Gestio akademikoko sistema

Ekintza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdm0130-Elkarketak

Elkartu beharreko taldeak

Ikasturtea: 2009/10
 Ikastegia: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Coi
 Plana:
 Irakasgaia:

Tipologia
 Klasikoa ☐ Berritua ☐ Gradua ☐ Masterra ☐
 Zikloa: Maila:
 Irakg. talde:

Irakg. talde. Irakasgaia Plana Plaza kopZikloa Maila

☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐

Irakg. azalpena
 Plan azalp.
 Haut. dena
 Desaut. dena

Elkarketak

HelbrIrakg. talde. Irakasgaia Mail. talde. Plaza kopIkastegia Plana Zikloa Maila

☐ 01 500363 20 908 INGMA301 Zehaztuge Zehaztuge
☒ 01 500363 40 908 INGMA201 Zehaztuge Zehaztuge
☐ ☐ ☐ ☐ ☐ ☐

☐ Kupoak helburuan
 Kupoak
 Ordutegiak
 Irakg. taldea

Ikastegia: Unidad de Estudios de Posgrado y Fc Plana: Máster en Ingeniería en Materiales A: Irakasgaia: Biopolimeroak eta sistema polimeriko I

Irakasgaiko taldea
 Record: 1/2 <OSC>

Beheko aldera jaitsi ondoren, **elkarketaren helburua** izango den taldea markatu behar dugu (elkarketaren helburuaz ari garenean, irakaskuntzari lotutako ezaugarriak eta ordutegiak jasoko dituen taldeaz ari gara. Talde horren mende egongo dira sortuko diren praktiketako talde guztiak. Beste talde guztiak elkarketaren jatorrizko taldeak dira. Beraz, ezingo zaie irakaslerik esleitu jatorrizko taldeei, eta ezin izango da haien praktiketako talderik sortu. Halakorik egin bada elkarketa grabatzean, sistemak berak ezabatuko ditu jatorrizko irakasgaiei lotutako praktiketako taldeak; eta, hortaz, helburukoak baino ez dira geratuko grabatuta). Urrats hori burutzeko klik egin behar da saguaz talde bakoitzaren ezkerrean agertzen den "Helbr" laukitxoan.

Pantaila berean, eskuin aldean, "Kupoak helburuan" izeneko laukitxo agertzen da. Sailaren erabakia izango da laukitxo hori markatzea ala markatzeke uztea. Gure aholkua da laukitxo markatzeke uztea. Izan ere, informazio hori matrikula prozesuko kupoei dago lotuta, eta oraingoz ez dago plaza arazorik. Modu honetara, elkarketa osatzen duen irakasgai bakoitzak bere kupoa izango du matrikula egiteko unean (kupoak helburuan).

Elkarketaren helburua hautatu ondoren, aldaketak gordeko ditugu eta aurreko pantailara itzuliko gara. Pantaila horretan berriz gorde beharko ditugu egindako aldaketak. Pantaila honetatik irteten bagara aldaketak gordetzeke, elkarketa ez da burutuko.

Gestio akademikoko sistema

Ekinza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

ofdc0030-Taldeen eta irakasgaien egoeren kontsulta

Hautatzeko irizpideak

Ikasturtea: 2009/10

Ikast.: 908 Unidad de Estudios de Posgrado y Formación C

Plana: INGMR301 Máster en Ingeniería de Materiales Renovables

Irakasgaia:

Saila:

Zikloa:

Maila:

Taldeen eta irakasgaien egoera

Irakl.	Iana	Ordut.	Ikast.	Plana	Zikloa	Maila	Irakasgaia	Saila	Irakg. talde.	Irakl. gen.
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500074	Material polimerikoen egitura eta ezaugarri	112 01 GA-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500074	Material polimerikoen egitura eta ezaugarri	112 01 GL-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500074	Material polimerikoen egitura eta ezaugarri	112 01 GO-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500074	Material polimerikoen egitura eta ezaugarri	112 01 S-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500075	Material makromolekularren termodinamika	112 16	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500075	Material makromolekularren termodinamika	112 16 GA-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500075	Material makromolekularren termodinamika	112 16 S-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500076	Eguraren zientzia eta teknologia	112 16 GA-1	
☐	☒	☐	908	INGMR301	Zehaztugak	Zehaztugak	500076	Eguraren zientzia eta teknologia	112 16 GL-1	

Ikast.: Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua

Plana: Máster en Ingeniería de Materiales Renovables (especi

Saila: Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza

Irakasla:

Ordutegiak:

Irakasle taldea:

Irakg. taldeak:

Elkarketaren datuak

Tal. Elk:

Helburua Elkarketa:

Bai:

Bai:

2540:

Elkarketa:

X

Record: 9/66

<OSC>

Aurretik egindako **elkarketa bat ezabatzeko**, "Irakasgaiko taldeak elkartzeko kudeaketa prozesua" pantailara joan behar gara eta dagokion erregistroaren gainean kokatu. Jarraian tresna barrako "Ezabatu erregistroa" botoia sakatuko dugu (gurutze gorria), elkarketa ezabatzeko. Horrela elkarketa bakarrik ezabatuko dugu, ez mailako taldeak: azken hauek "elkargarri" ezaugarriarekin jarraituko dute (Taldeak elkartzuta: BAI). Talde horiek azkenean elkarketarik osatuko ez badute, ezaugarri hori aldatu behar dugu taldeak sortzeko pantailan, modu honetara: "Taldeak elkartzuta: **EZ**". Eragiketa hau egiten ez bada, lehen esan dugun moduan, ezingo zaie esleitu irakasle talderik talde hauei.

Aurreko urteetako esperientziak aditzera ematen digu sail gutxi batzuk egin beharko dituztela elkarketak, baina eskainitako masterren kopuruak gora egin ahala, uste izatekoa da gero eta gehiago izango direla elkartu egin beharko diren irakasgaiak, antzeko edukia daukatelako master desberdinetakoak izan arren. Dokumentu honetan azaldu den prozedurak balio du master desberdinetako irakasgaiak elkartzeko, baldin eta sail berari esleituta badaude. Hala ere, beharrezkoa gerta daiteke "sailen arteko elkarketak" egitea, hau da, antzeko edukiak izanda sail desberdinei esleituta dauden irakasgaiak. Sailek, oraingoz, ezingo dituzte egin halako elkarketak. Hortaz, kasuan kasuko taldeei buruzko informazioa bidali beharko diote Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako Zuzendaritzari, zerbitzu horrek sartuko baititu halako elkarketak sistema informatikoan.

7. SORTU EGIN BEHAR AL DIRA MASTERRETAKO TESIEI EDO IKERKETA LANEI ETA PRACTICUMARI DAGOZKIEN IRAKASGAIETAKO TALDEAK?

Bai, sortu egin behar dira. Izan ere, sortzen ez badira, ikasleek ezingo dute egin matrikula. Talde horiek sortzeko prozesua beste irakasgaietako taldeak sortzeko berbera da. Hala ere, prozesuak baditu ezaugarri berezi batzuk, irakaslanaren grabazioari eta irakats betebeharrak esleitzeari dagozkienak, 9. eta 10. puntuetan azaltzen ditugunak.

8. NOLA GRABATZEN DA IRAKASLANA?

Taldeak behin sortuta, 5. atalean emandako azalpenei jarraiki, irakaslana grabatuko da. Sailek ohiko zeregina dutenez irakaslana grabatzea, ez dugu azalduko prozesu osoa, baizik eta graduako irakasgaien grabazioan agertzen ez diren alderdiak.

Hauek dira, funtsean, alderdi berriak:

1. Masterraren proposamenean zehaztutako irakasleak baino ez dira azalduko goitik beherako menuan, hala UPV/EHUkoak (sailekoak izan zein ez izan) nola UPV/EHUkoak ez direnak.

Dena dela, badago aukera proposamenean zehaztuta ez dauden irakasleak sartzeko. Dokumentu honetako 12. puntuan azaltzen dugu zer egin behar den irakasle horiek goitik beherako menuan ager daitezen.

2. Programak egiaztatu egingo du irakaskuntza mota bakoitzari esleitutako kredituen kopurua (talde magistrala izan zein praktiketako taldeak izan), kopuru hori ez dadin izan irakasgaiak zehaztuta dauzkan kredituak baino handiagoa. Hau da, proposamenean 3 kreditu esleitu bazaizkie eskola magistralei, irakasgaia emango duten irakasleei ezingo zaizkie esleitu 30 ordu baino gehiago irakaslana grabatzerakoan (1 kreditu = 10 ordu masterreko irakasgai guztietan). Horrela egiten ez bada, programak jakinaraziko du errore bat gertatu dela, eta ezingo dira gorde aldaketak errorea zuzendu artean. "Irakaslana" pantailan bertan ikusten da irakasgaiak zehaztuta dauzkan kredituen kopurua, egin behar hau errazagoa izan dadin.

9. NOLA GRABATZEN DA MASTERRETAKO TESIEI EDO IKERKETA LANEI ETA PRACTICUMARI DAGOZKIEN IRAKASGAIEEN IRAKASLANA?

Practicumarekin hasiko gara. Irakaslana masterraren ardura daukan organoak grabatu behar du, eta organo hori saila edo ikastegia izan daiteke. Grabazioa egiteko era berbera da, organoa saila izan zein ikastegia izan.

Masterraren arduraduna sail bat bada, sail moduan sartu behar da irakaskuntza-eskaintzan eta 77777 saila aukeratu, sartu ikastegia, planaren kodea, eta practicumeko irakasgaiari dagokion kodea.

Masterraren arduraduna ikastegi bat bada, ikastegi moduan sartu behar da irakaskuntza-eskaintzan eta 77777 saila aukeratu, ikastegia, planaren kodea, eta practicumeko irakasgaiari dagokion kodea.

Bi kasuetan honako hauek egin behar dira:

1. Ikasleen tutoretza-, gainbegiratze- eta ebaluazio-lanetan parte hartzen duten irakasleen izenak txertatu beharko ditu sailak/ikastegiak. Bide batez, eta beharrezkoa bada, aktako ordena adieraziko du. Honako pantaila honetan egingo da hori. Pantaila horretara hemendik sartzen da, hurrenez hurren: irakaskuntza-eskaintza/irakasleak/irakaskuntza praktikoak (Irakaskuntza Taldea).

Horretarako, hona jo beharko da: irakaskuntza-eskaintza / irakasleak / irakaskuntzaren berariazko deklarazioa / tutoretza duten gaiak. Pantaila horretan, gauzatutako tutoretza-lanak irakaskuntza-betekizunean zer ikasturtetan adierazi behar diren hautatu beharko da (adibidez, 2012/13 ikasturtean gauzatutako tutoretza-, gainbegiratze- eta ebaluazio-lanetarako 2012/13 ikasturtea aukeratu beharko da). Ondoren, irakasleak kargatzeko botoia sakatu beharko da.

Oso garrantzitsua da irakasle bakoitzak tutoretza-lana egin dien ikasleen kopurua adieraztea. Hartara, behar bezala gehituko dira kredituak irakaslearen irakaskuntza-betekizunean.

Pantailako adibidean 2012/2013 ikasturtea aukeratu da, 2012/13 ikasturtean egindako tutoretza-lanei dagozkien kreditu-kargak egiteko; eta horiek, hain justu, 2012/2013 ikasturteko irakaskuntza-betekizunean agertuko dira.

Master-amaierako lanak: eskuliburu honetako hurrengo puntuan adierazten den moduan, master-amaierako lanak zuzentzeagatik irakasleari dagozkion irakats betebeharrak ez dira esleitzen lan horiek egin dituen ikasturtean, bi ikasturte beranduago baino. Baina hori egin ahal izateko, bi urrats hauek eman behar dira aurretik:

1. Master-amaierako lana zuzentzeagatik irakasleari dagozkion irakats betebeharrak kalkulatu ahal izateko beharrezkoa den informazioa grabatuta egon behar da.


Informazio hori grabatzen den pantailetan ezin dira sartu ez masterraren ardura daukan organoa ez Irakasle eta Ikertzaileen Plantillako Zuzendaritzak. Horregatik, ondoren azaltzen den bigarren urratsa ematean daturen bat okerra dela ikusiko balitz, masterraren arduradunak egiaztatu beharko luke grabatutako informazioa zuzena dena ala ez.

Horretarako, harremanetan jarri beharko da informazio hori gestionatzen duen zerbitzuarekin, hau da, masterren idazkariekin, eta behar izanez gero, Akademia Antolakuntzako Zerbitzuarekin.

2. Master-amaierako lanak zuzentzeagatik irakasleari dagozkion kredituen karga egin behar da. Horretarako, masterraren ardura daukan sailak edo ikastegiak, sail edo ikastegi moduan sartuta irakaskuntza-eskaintzan, beherago agertzen den pantailara heldu behar da: irakaskuntza-eskaintza/irakasleak/irakaslana/tutoretza izan duten gaiak.

Pantaila horretan aukeratu behar dira 77777 saila, sartu ikastegia, planaren kodea eta master-amaierako lanari dagokion irakasgaiaren kodea; eta, ondoren, "Kargatu irakasleak" botoia sakatu behar da.

Ikasturtea aukeratzean, kontuan izan behar da master-amaierako lanak zuzentzeagatik irakasleari dagozkion irakats betebeharrak ez direla esleitzen lan horiek egin dituen ikasturtean, bi ikasturte beranduago baino. Beraz, 2023/2024 ikasturtea aukeratzen badugu, 2021/2022 ikasturtean zuzendutako master-amaierako lanei dagozkien kredituak agertuko dira 2023/2024 ikasturteko irakaskuntza-betekizunean.



10. NOLA ESLEITZEN ZAIZKIE IRAKATS BETEBEHARRAK TUTORE LANAK EGIN DITUZTENEI MASTERRETAKO TESIEI EDO IKERKETA LANEI ETA PRACTICUMARI DAGOZKIEN IRAKASGAJETAN?

Masterreko tesia edo ikerketa lanak zuzentzeagatik irakasleari dagozkion irakats betebeharrak ez dira esleitzen² tutore lanak egin dituen ikasturtean, **bi ikasturte beranduago** baino (hau da, lana defendatu eta onartua izan ostean)

Irakasleen Jardun Akademikoaren Plana indarrean jarri dela kausa, 2013/14 ikasturteko irakaskuntza-enkargurako (2011/12 kurtsoan egindako Master amaierako lanegatik) eta hurrengo kurtsoetarako, irakasle bakoitzari **gehienez 6 kreditu** aitortuko zaizkio **ikasturte berean**. Aitortuko diren kredituak honako hauek izango dira:

- *0,5 kreditu, master amaierako lanak 8 kreditu edo gutxiago baditu*
- *0,75 kreditu, master amaierako lanak 8 kreditu baino gehiago baina 12 baino gutxiago baditu*
- *kreditu 1, master amaierako lanak 12 kreditu edo gehiago baditu*

Practicumeko irakasgaien kasuan, irakats betebeharrak kontatzeko, graduako titulazioetako practicumerako gaur egun erabiltzen den formula berbera erabiliko da. Hau da aipatutako formula:

$$\text{Kreditu kopurua} = 0,02 \times K \times A$$

non:

K = masterreko planean practicumari esleitutako kreditu kopurua den

A = irakasle bakoitzari esleitutako ikasle kopurua den

Gehienera ere **12 kreditu** esleitu ahal izaten ziren. Hala ere, Irakasleen Jardun Akademikoren Plana indarrean jarri dela kausa, 2012/13 eta hurrengo kurtsoetarako irakasle bakoitzari **gehienez 6 kreditu** aitortuko zaizkio **ikasturte berean**.

² Esate baterako, ikasle batek 2021/22 ikasturtean egin bazuen masterreko amaierako lana eta 2022ko irailean defendatu, lan hori zuzendu zuen irakasleari esleitu beharreko irakats betebeharrak 2022/23 ikasturtean grabatuko dira GAUR aplikazioan eta, beraz, 2023/24 ikasturteko irakats betebeharretan agertuko dira jasota.

11. ZER GERTATZEN DA BESTE UNIBERTSITATE BATZUETAN IRAKASTEN DIREN UNIBERTSITATEEN ARTEKO MASTERRETAKO IRAKASGAIEKIN?

Halako irakasgaiak direnean, taldeak sortu behar dira. Izan ere, hori da UPV/EHUko ikasleek duten modu bakarra irakasgai horietan matrikulatzeko.

Bestalde, UPV/EHUko irakasleren batek irakasgai horien eskolak ematen baditu beste unibertsitate batean, kasuan kasuko irakaslana grabatuko da.

12. ZER EGIN BEHAR DA MASTERRAREN PROPOSAMENEAN AGERTZEN EZ ZEN IRAKASLE BAT SARTZEKO?

Egoerak bi izan daitezke:

- **Irakaslea UPV/EHUko beste sail batekoa da.** Halakoetan, irakaslea atxikita dagoen sailaren baimena beharko da ("Irakasleak" pantaila erabiliko dugu, "Unibertsitateko masterrak (ofizialak)" menuko "Baimenak" atalaren barruan). Horrez gain, Masterraren Ikasketa Batzordearen onespena ere beharko da ("Irakasleen potentziala handitu" pantaila erabiliko da, "Unibertsitateko masterrak (ofizialak)" menuko "Baimenak" atalaren barruan).
- **Irakaslea ez da UPV/EHUkoa.** Halakoetan, kasuan kasuko datu basean sartuko beharko du sailak irakaslea, aurretik sartuta egon ez bada. Aurreko puntuan aipatzen den onespena (Irakasleen potentziala handitu) ere beharrezkoa da, eta pantaila bera erabiliko da horretarako.

Honako urrats hauek eman behar dira aipatutako aldaketak GAUR aplikazioan grabatzeko:

12.1 Sailen baimena

- a) **Irakaslea UPV/EHUko beste sail batekoa bada**, irakaslea atxikita dagoen sailak **baimena** eman behar du lehenik eta behin. Hortaz, "Unibertsitateko masterrak (ofizialak)" menura joanda, "Baimenak" eta "Irakasleak" aukeratu behar dira.

Sailak aurreko urteetan emandako baimenak agertuko dira pantaila horretan. Jarraian tresna barrako gurutze berdean egingo da klik, beste erregistro bat sortzeko. Datu hauek adieraziko dira:

- **Proposatzaile mota:** kasuan kasukoa aukeratuko dugu, saila edo institutua.
- **Kodea:** sartu nahi den irakasleari dagokion saila aukeratuko dugu.
- **Irakaslea:** sartu nahi den irakaslea aukeratuko dugu.
- **Helburuko masterra:** irakasleak eskolak emango dituen masterraren zenbakia aukeratuko dugu.
- **Helburuko gaia:** irakasleak eskolak emango dituen irakasgaiaren zenbakia aukeratuko dugu.

F9 sakatuta edo "Balio zerrenda" ikonoa aktibatuta, eremu bakoitzeko goitik beherako menua agertuko da eta bertatik hartuko dugu kasuan kasukoa.

- **Kredituak:** irakasleak emango duen kredituen kopurua.
- **Baimen data:** irakasleari baimena eman zaion data.

Datu guztiak behin sartuta, "Gorde" botoia sakatuko dugu.

Datuak behin grabatuta, ulertuko da sailak ontzat ematen duela irakasleak eskolak eman ditzala masterreko irakasgaiak (adierazitako kreditu kopurua hain zuzen ere). Sailak irakasleari baimena emanda, Masterraren Ikasketa Batzordeak ere ontzat eman beharko du irakasleak eskolak eman ditzala masterrean, hurrengo puntuak azaltzen den pantailaren bitartez.

- b) **Irakaslea ez bada UPV/EHUkoa**, kasuan kasuko datu basean sartu beharko du sailak, aurretik sartuta egon ez bada. Horretarako, "EHUkoak ez diren langileen mantentzea" pantaila erabiliko du. Pantaila hori "Mantentze orokorrak" menuaren barruan dago GAUR aplikazioan.

Nahitaezko eremu guztiak bete behar dira. Datuak behin gordeta, "Kanpoko irakaslea" aukeratu behar da eta prozesua osatzeko beharrezkoa den informazioa eman. "Irakasleen potentziala handitu" pantailako irakasleen balio zerrendan ager dadin, "Aktibo" laukitxoak markatuta egon behar da.

Gestio akademikoko sistema

Ekintza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

genm0110-EHUkoak ez diren irakasleen mantentzea

NAN	Izen-abizenak	Kolektiboa	Aktibo	Dokt.
ABC	A A, A	Kanpoko irakaslea	☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐
			☐	☐

Jatorri mota

Kanpoko enpresaren datuak

Enpresa

Kargua

Unibertsitatea

Saila

Arloa

Kategoria

Titulazioak

EHUrekiko erlazioa

Asteko orduak

Hasi data

Amai data

Ez da erregistrorik aurkitu.

Record: 1/1

12.2 Masterraren Ikasketa Batzordearen baimena (Irakasleen potentziala handitu)

Masterraren proposamenean agertzen ez zen irakasle bat, UPV/EHUkoa zein kanpokoak, **datu basean ager dadin**, adierazi egin behar da zein datatan onartu zuen aldaketa hori Masterraren Ikasketa Batzordeak.

Horretarako, "Unibertsitateko masterrak (ofizialak)" menura joanda, "Baimenak" eta "Irakasleen potentziala handitu" aukeratuko dira.

Gestio akademikoko sistema

Ekintza Editatu Kontsulta Erregistroa Eremua Ventana Laguntza

popm0210-Irakasleen potentziala handitu

Hautatzeko irizpideak

Ikastegia

Saila

Plana

Irakasgaia Zikloa Ikasturtea

Irakasleak

EHU	NAN	Izena	M.Batz. baim. data	Sail. Baim	Sail. Baim. data	Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma
☐				☐		Curriculuma

Ikastegia

Record: 1/1

Agertuko den pantailako eremu hauek derrigor bete beharko dira: ikastegia, saila, plana, irakasgaia, zikloa eta maila. Jarraian, irakasleen datuak idazteko lehenengo lerrora joanda, eremu hauek beteko dira:

- EHU: markatuko da, irakaslea UPV/EHUkoa bada.
- NAN: Zenbakia idatzita, irakaslea UPV/EHUkoa bada, izen-abizenak zuzenean agertuko dira. Horrela gertatzen ez bada eta beste sail bateko irakaslea bada, sailak baimena emanda duela egiaztatu beharko da "Irakasleak" pantailan.
- M. Batz. baim. data: Masterraren Ikasketa Batzordeak irakasleari eskolak emateko baimena eman dion data.
- Curriculum: eremu hau betetzeke utz daiteke.

13. MASTERRAK GRABATZEKO EPEA

Urtero masterren arduradunek dagokion informazioa jasoko dute.